

eskutitzak



bizkaia@egunkaria.com



Egia Jenerala, 3-behea 48010 Bilbo

Euroa, abertzalea

Bittor Allende • BILBO

Ipar Irlandako abertzaleek euroa erabili-ko dabe unionisten Erresuma Batuko 'libera esterlina'-ren aukako jarrera azaltzeko. Sei konterrietako mugetan ohizko dan estraperluak nazino eraikuntzaren aldeko merkatu bihurtuko da, Eirek euroaren aldeko apustua egin dauelako.

Euskal Herrian, euroa Europako 'sal-tzaileek' halabeharrez sartutako dirutzat daukagu. Hamen ez dago monetea nazio eraikuntzan erabiltzerik. Nazino eraikuntzan Europan holan edo halan sartzea besterik ez daukagu.

Euskal politikari batek Aznar eta Toni Blairren arteko konparaketea egiten eban modura, Irlanda eta Euskal Herria parekatzea nahi izan dabenek guztiz oker dabilta.

Azkenean, beste moneta propio baten aldeko apustua izango da onena. Bitartean, euroaren dakartzan buruhausteak sahiestea besterik ez daukagu. Urteaz-har gauean izango dira komeriak.

Estraperluko sasoieta itzuli beharko genduke, edo hobeto, diru bako tukaketa gizartea eraiki. Gauzak holan, edozein errekurtsu ontzat jo daiegu. Oraindik orain ez dotez erosi euro 'dixosoak'. Banketxe baten lan egiten dauen lagun-batek esan eustanaren arabera, aurretiaz euroak erosi dituan jenteak Gabon-zahar egunean kartetan jokatzeko erabilteko besterik ez ditue erosi.

Euskal Herriko futbol selekzioa, urterik behin

Aitor Otxandorena • GERNIKA-LUMO

Atzo jokatu eban Euskal Herriko futbol selekzioak Ghanaren aurkako partidua, urteroko ohiturea bihurtu dan partidua.

Atzo, betiko legez, izugarritzko giroa bizi izan zan San Mameseko harmaila-

OHARRA: Ahalik eta eritxi gehienek tokia izan daien, ez da komeni makinazko 15 lerro baino luzeago idaztea gutun honeetan. Idatzi dauanaren izena, telefonoa, helbidea eta NAren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, zuzendaritzak bere esku dau horretarako eskubidea. Erdaraz ailegetan diran gutunak ez dira argitaratuko.

tan. Ohiturea dan moduan, Euskal Herri guztitik etorritako zaleak bildu ziran. Gipuzkoarrak, Nafarrak, Iparraldetik etorritako gazte alaiak be ikusi genduzan jai giroan Katedral inguruan. Guztiak jaiaren alde, ikuskizunaren alde, eta ofizialtasunaren alde.

Emaitza gutxienekoa zen atzo be. Eta horrek kezkatzen nau gehien. Azken urteotan Gabonetako ohiturea bihurtu da, Olentzerok ainako ilusino sortzen dau jarraitzaile askoren artean... baina ilusino hori atzerapauso bat ez ei dan pentsetan dot sarri askotan.

Euskal Selekzioek jokatzan daben neurketek alde egin behar dabe «folklore-tik» eta ofizialtasunera bidean beste pausu bat ematea beharrezkoa da. Eta bide horretan, inork giltzarik badauka hori politikariak dira. Eusko Jaurlaritzak zein Federazioek ahalegin berezia egin behar dabe. Zailtasunak—inork ez dau zalantza jartzen asko eta asko dirala—gainditu etaamets bat baino zerbait gehiago dala sinestarazi behar deuskue.

Ofizialtasunean aurrera egiteko bide asko dagoz. Bat, ESAITek proposatu daben moduan, uda partean partidu gehiagotzat izan leike, eta neure eritxiz ahal baldin bada Euskal Herriko kanpo jokatu beharko litzake—atzerrian be geure barri izan daie—.

Bideak bide folklorea alde batera laga eta aurrera jo behar dogu—futbolak egun daukan indarrarekin gainera onura baino kalte gehiago egiten deusa eta—.

Zaleen laguntza—atzo ikusi genduan moduan—ez da faltako.

Boroako zentralaren ganeko galdeketea

Imanol Arrieta • ZORNOTZA

Herritarren artean egin beharreko erreferenduma galdeketa apala besterik ez da izango, komunikabideetan irakurri dodanez. Galdeketa baten eta erreferendumen arteko mugak non dagozan argitu beharko deust nonork. Baina nire ustean, Boroako zentrala inposatzeko beste pausu bat besterik ez da.

Udal agintariak makurtu egin dira EAJko EBBtik agindutako kaleratzeen ostean. Zornotzako herritarrek zentralaren ganean daukien eritxia behin eta barriro azaldu dabe manifestazinoetan. Erreferendumak berretsi egingo lituke Zornotza Bizirik plataformaren planteamenduak. Guztiz bildurtuta dagoz gure agintariak.

Herrien autodeterminazioaren eske gabilzanean, oso triste da norberaren aldeko emaitzak arriskuan dagozanean, demokraziaren oinarriak bertan behera lagatzea.

Ez dakit zein izango dan galdeketearen emaitza, baina ez da izango erreza jentearen eritxiaren kontra egitea. Herritarrek merezitako agintariak daukaguza la egia bada, ez daukagu zereginik auzi honetan. Orain arte eroan daben jarrea herritarren kontrakoa izan da. Ez naz Rapel, baina argi daukat trikimailuren bat erabiliko dabela zorigaitzoko galdeketearen emaitza estaltzeko.

Agian oker ibiliko naz, baina eskubideak berberak izan beharko litzateke hamen eta Afganistanen. Begoña Azarloza alkateari benetako erreferenduma antolatzeke eskatzen deustot. Zornotzarren benetako eritxia jakin daigun. Zornotzarrek demokraziaren zutabeen ganean daukiezan sinesmenak dagoz joakoan.

Eta inportanteagoa, Zornotza bizirik gordetea etorkizuneko belaunaldien onuretan.

Gabonetako iruzurra

Mikel Conde • BILBO

Txikitan hasi ziran arazoak. Ikastola sa-soian. Gabonetan danak zoriontsu, danak adiskide, danak lagun ginala esaten euskuen. Esan, entzun, eta guk sinistu. Gero izan ziran komeriak, urteak hartzeak batera heldutasuna ailegau jakunean. Orduan konturau ginan dana guzurra zana: Zoriontsu izateko gitxieneko baldintzak falta jakela herritar askori; adiskide izateko lehenengo eta behin alkarrenganako errespetua behar zala, eta halakorik ez da inon ikusten; eta lagun izateko... zelan izan lagun adiskide izateko be gai ez bagara?

Orain konturatzen naz iruzurraren tainaz, batez be Corte Ingles eta antzeko merkatarien kanpainak ikusten ditudanean. Eurak bai zoriontsu, egunotan egiten dabe eta negozioirik biribilena.

Ama kristaua da. Kristau zintzoa gainera. Eta sufritzen ikusten dot egunotan, berak be ondotoxo ikusten dauelako iruzurraren tainea. Bera Elizagaz dago haserre, ez sinisten daben gizon eta emakumeak, elizaren nagusiak baino. Nik ez dot sinisten, baina bat nator amagaz, bai kritika horreetan behintzat.

Gabonak dirala eta, berba asko egin dogu geure artean Zamakolan gertatzen diran tira-biren ganean. Ama Hontza zentroan izan zan, osteria egiten, eta minduta itzuli zan etxera. Han gertatu ziranak entzun ostean, Gabonetako iruzurra ikastolan esan euskuena baino are handiagoa, gordinagoa, inguingarriagoa dala konturatu naz. Besteari zor jakon errespetoa, maitauna, begirunea... zer dakit nik... ez dabe aditzen Zamakolakoek. Eurak izango dira, gero, kristaurik finenak, Gabonetako eredu.

asfaltoko kronikak

Gotzon Hermosilla

Bera zan

Albistea irakurri nebanean, susmo txarra hartu neutsan: lagun bat hilik aurkitu dabe Galindo errekan itota. Hogeita hamar urte inguruko barakaldar gizonezko bat. Adin horretako barakaldar guztiak ez ditut ezagutzen, jakina, baina aukerea baegoan. Azkenean, susmorik txarrenak baieztatu dira: bera zan.

Eta orduan, gogoetak tropelka etorri jataz akordura. Alkarregaz kontzertuak ikustera joaten ginanekoa, Audioko gasetxera edo Ugaoko Bazter tabernara, Zirika Irratian egiten genduan irratsaio lotsagabe ha, Bunkerren entseiatzen eben rock talde guztien arteko laguntasun giroa, Distorsion, Miserables, Putakaska, Mierda Radiactiva... Rock erradikalaren aurreko garaiak ziran hareek, baina gerora etorriko zan mugimendu itzel haren lehe-

nengo zantzuak somatzen ziran. Dana jakin gurea, dana probau beharra, dana bizitzeko irriakea... Mundu barri bat zabalitzen zan gure begi harrituen aurrean, eta guretzat gura genduan. Dana. Atoan.

Eta gogorapenen haritik tiraka, bion lagun batek esan eustanagaz be gogoratu naz: «beragaz Parkera joateko eskatu deust, txute bat sartzera doala eta lagun bat behar daua, sartzen dauan bitartean eusteko. Kaka jatera bialdu dot; horrela koetan sartu gura badau, bere problema da, baina nik ez deustot lagunduko».

Lehenengo ziztada horren atzean beste

asko etorri ziran. Lagun gehiago jausi zan hauts zuriaren lilurearen pean. Gu, garai hartan, oso erradikalak ginan, erradikalegiak: gainontzeko drogei muzin egiten ez bageuntsen be, heroinagazko tratuetan hasten ziran guztiak etsai bilakatzen ziran, legendunen moduan begiratzen geuntsen eta eurakaz genduzan harreman guztiak apurtzen genduzan. Beharbada, ulerko rragoak izan bagina, malguagoak, onberagoak... Baina ez; gazteegiak ginan.

Azken urteotan sarritan ikusten neban metadonea banatzen daben autobuserako bidean (Barakaldon, autobus bat jar-

tzen dabe herriko inguruetan eta drogazaleak hara joaten dira metadonaren bila; guk jonkibusa esaten deustagu). Edo pasean, orain inoizko gabonik mingotse-nak igarotzen egongo dan bere ama zaharraz. Edo futbol zelaian, Barakari animoak emoten.

Orain badakit ez dodana osteria ikusiko. Errekan ito da. Eta, tira eta tira, Zamakolako auzoek dioena be etorri jat burura: «Hontzaren alde zagozenok, zeuon auzunean jarriko balebe, problema beste era batera ikusiko zeunkie». Bai, arrazoia daukie: bere garaian, nire auzunean heroinazaleei laguntzeko gune bat jarri izan balebe, beharbada orain ez nintzake hemen egongo, hildako lagunagaitik amorrurak agindutako berba zatarrok idatzen.